



Rosa Ayerbek
herri izaeraren
sorrerari
buruzko
liburua
idatzi du

2015eko apirilaren 30a, 438 zenbakia X. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

URNIETA 1615-2015

Sute ikusgarria eta kalte handiak Andoaingo Cortusa lantegian

Gudarien etorbidean dagoen Cortusa lantegian sute ikusgarria piztu zen astearte eguerdian.

Eguerdiko ordubiak iristeko minutu gutxi falta zirenean ke beltz-beltza irteten hasi zen Cortusa lantegian. Minutu gutxira laino beltza urrutitik ikus zitekeen. Tentsio uneak izan ziren hasieran, langile bat teilatuan geratu baitzen. Gainerakoak berehala irten ziren eraikinetik, eta falta zen langile hura atera zutenean egoera nabarmen lasaitu zen. Ikustear dago lantegian kalteak zenbatekoak diren. Billegia eta beheko solairua keak zikinduta ageri ziren. Tresneria ere kalte-tuta dagoela adierazi zuten.



Suhiltzaileak arratsaldeko 19:00ak baino lehen alde egin zuten lantegitik. Kaltea zenbaterainokoa den, geroak esango du. Aiurriko lantaleak lehen uneetan atera zituen argazkiak eta bideoak berehala zabaldu ziren Gipuzkoako eta EAEko hedabide nagusietan.

“Escaños en blanco”, Urnietan kanpaina

Maiatzaren Udal hauteskundeetarako hautes-zerrendei erreparatuz gero, hautagai berriak aurki daitezke. Gipuzkoa osoan “Escaños en blanco-Aulki zuriak” alderdiak Urnietan bakarrik aurkeztu du zerrenda. Larunbat honetan informazioa banatuko dute Idiazabal kalean, eta hilaren 16rako ekitaldia egingo dute Lekaion. Daniel Lizarralde herritarra izan da hautes-zerrendaren sustatzailea.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Irabazi eta Ganemos, aurrez aurre Andoainen

Andoainen agerian geratu da berriro Ezker Batuaren baitan aurreko urteetan izandako zatiketa. Udal hauteskundeetara ia izen bereko bi hautagaitza aurkeztu dira: “**Irabazi Andoain Ganar**” eta “**Ganemos Andoain Irabazi**”. Lehenak helegitea aurkeztu du.

Podemos alderdiak ez du ez bata eta ez bestea babesen. Erantzun argia eman diote Aiurri, “Andoainen ez da Podemoseko zirkulurik sortu, eta hortaz ez gara murgildu Andoaingo Udal hauteskundearen prozesuan”.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Gure Esku Dago, ekainera begira



Zumea plazan aurreko larunbatean oihalak apaintzen eta euren artean josten aritu ziren dozenaka herritar, erabakitze eskubidearen alde.

Apaindutako oihalak elkarren artean josi eta hautes-ontzi erraldoia osatu nahi dute datorren ekainaren 21ean, Anoeta estadioan egingo duten ekitaldian. Horren aurretik, “herritarren borondatea ehuntzen” aritu ziren Andoainen. Ixiar

Orejak Gure Esku Dago taldearen asmoa azaldu zuen: “Herritarren borondatea elkarrekin josi nahi dugu, herritarrok geure erabakia aurrera eramateko aukera izan dezagun. Asmo horretan herritar guztiak ongielorrak dira”.

Santakrutzak asteburu osoan zehar

Koadrilen eguna giro ederrean igaro ondoren, ekitaldiz beteriko asteburu luzea dator.

Jaiaren lehen txanpa igaro da, baita ondo igaro ere. Bostehun lagunetik gora Bekoplazan elkarrekin bazkaltzen aritu ziren, giro ederrean. Eguraldi onari esker, eguna bikain ospatzeko aukera izan zuten. Goizetik jokoekin eta txaranga doinuekin ospakizunean

murgildu ziren. Eta bazkalostean ere, Koadrilen eguna giro onean igaro zen.

Ostegun honetan jaiaren hasierako pregoiarekin eta Zumea-tarra elkartearen danborradarekin, ekitaldi ugari beteriko asteburu luzeari hasiera eman gidiote. Hitzordu ugari dauka, tartean tradizio handikoak eta beste zenbait ekitaldi berri. Azken horien artean patinaia lasterketa edota Baby Big Band musika jaialdi berezia.

[ANDOAIN, 6-9. ORRIALDEAK]



Koadrilen egunean giro ederra sortu zen.

Hiazintoren liburuaren aurkezpena



[URNIETA, 10. ORRIALDEA]

MAIATZAREN 24KO UDAL HAUTESKUNDEAK

Hautagaitza eta hautagai berriak hautes-zerrendetan

Apirilaren 22an hautes-zerrenda ofizialak argitaratu ziren, hautagaitza eta hautagai berriak ezagutzeko baliagarri izan zena. Ezustekoak izan dira Urnietan. Esaterako, “Urnietako Herri Plataforma” ez da

azkenean aurkeztu. Eta, aldiz, Gipuzkoan soilik Urnietan aurkeztuko da “Aulki zuriak” izeneko alderdia. Mikel Izagirre alkate ohia EH Bilduko hautes-zerrendan topatzea izan da beste ezusteetakoa.

Hauteskundeetan boto zuria aukera bat da. Boto horiek zenbatu egiten dira, baina ordezkaritza banatzeko garaian zuriaren aldekoak ekuaziotik kanpo geratzen dira. Horri aurre egiteko, duela urte batzuk estatu mailan “Esaños en blanco - Aulki zuriak” alderdi politikoa sortu zen. Europar Batasuneko 2014ko hauteskundeetan, esaterako, 115.000 boto eskuratu zituen Espainia osoan. Boto zuriaren aldekoek gaur egun dutena baino protagonismo handiagoa eman nahi diote, egungo sistema politikoa aldatu behar dela aldarrikatzearekin batera. Maiatzaren 24ko Udal hauteskundeei begira Gipuzkoa osoan hautes-zerrenda bakarra osatu dute, non eta Urnietan. Zerrendan hirugarren postuan doana **Daniel Lizarralde** urnietarra da. Galdera agerikoa da, zer dela eta Urnietan Aulki zuriak hautes-zerrenda? Aiurriri egingdako adierazpenetan, Lizarralde honakoa aitortzen du: “erantzuna neu naiz. Bertakoa naiz eta ni neu sustatzaile lanetan aritu naiz. Alderdiaren ideiak aztertu eta gogoko nuela ikusi nuen. Laguntza emateko ardurak hartu nituen, eta non egin nezakeen lan? Bada, nire herrian bertan. Jende arrunta gara, eta elkar lagunduz Gipuzkoan bakarria izango den zerrenda osatzea lortu dugu”. Gogotsu ekin dio ardurari. Larunbat honetan, maiatzak 2, Idiazabal kalean informazioa zabaltzen arituko dira. **Jose Luis de Zubikaray** hautagaia bera izango da ekitaldian. Maiatzaren 16an, bestalde, Lekaion ekitaldi nagusia antolatuko dute.

Aulki zurien aldekoa Urnietan azken bospasei hilabeteetan hautes zerrenda osatzeko lanetan aritu den **“Urnietako herri plataforma”**rekin inolako zerikusirik ez duen mugimendua da.

Alderdi klasikoan artean, izen berriak nabarmentzen di-

“Aulki zuriak” alderdiko alkategaia larunbatean Idiazabal kalean informazioa zabaltzen arituko da

*“Urnietak aldaketarako egitasmo bat behar duela uste dut”
Ivan Haro, PSE-EE*

*“Profesionalkieta kirolean dudan esperientziarekin ekarpenak egin ditzaket”
Jorge Segurado, EAJ-PNV*

*“Agintaldi osoan aritu naiz EH Bilduri laguntza eskainiz”
Mikel Izagirre, EH Bildu*



Lekaion hautes ontziak ireki eta zenbaketa garaian, 2014ko maiatzaren 26an.

ra. Urnietan **Ivan Haro** korrikalaria sozialisten zerrendan bigarren doa, zinegotzi izateko

aukera askorekin: “Urnietan bizi naizela sei urte dira. Gizarte mugimenduetan, langile-

en defentsan eta kirol jardueretan murgilduta ibili naiz beti. Frutosen eskaintza onartu nuen, Urnietak aldaketarako egitasmo bat behar duela uste dudalako. Urnietarrok kirol instalakuntza hobeak eta gizarte nahiz kultur mailako jarduera gehiago eta ezberdinak behar ditugu. Baita herria irisgarriagoa izatea ere”.

Zinegotzi izateko aukera asko ditu **Jorge Segurado** arkitektoak ere, jeltzaleen zerrendan hirugarren doana: “Egia esan politikan parte hartuko dudarik ez nuen sekula pentsatu. Orain bi hilabete galdetuz, niretzat ez dela erantzungo nuke. Mikel Pagolak egin zidan

eskaintza, eta azaldu zidana erakargarria egin zitzaidan. Bere egitasmoa gogokoa egin zitzaidan eta emaztearekin ondo aztertu eta gero, pausu bat aurrera ematea erabaki nuen. Maila profesionalean eta kirol jardueretan dudan esperientziarekin ekarpenak egin ditzakedala uste dut. Nire aletxoa jartzea nahiko nuke”.

EH Bilduko zinegotzi izango dena **Mikel Izagirre** alkate ohia izango da. Ezusteetakoa izan da, PCE eta Ezker Batuaren inguruan ibili delako urte luzez. 2007-2011 agintaldian UDA herri plataformarekin alkate izan zen.

EH Bilduko ordezkari aurkeztuko dela eta, lehendik datorren erabakia dela adierazi dio Aiurriri, “agintaldi osoan aritu naiz EH Bilduri laguntzen, laguntza puntuala eskainiz”. Besteak beste, hirigintza alorrean.

Udalgintzan berriro aritzeko gogotsu dagoela aitortzen du. Bigarren izanik ziuera da bere parte hartzea udal jardueran, datozen lau urteetan. Eta zertan jardungo duen galdetuta, “irabaziz gero hirigintza, ingurumena, landa gunea eta zerbitzuak lanskailak neronek eramango ditut”.

“Hari gara” prozesuan parte hartu du azken hilabeteetan.

MIKEL PAGOLA HAUTAGAIAREN AURKEZPEN EKITALDIA

Asteazken honetan, apirilak 29, Urnietako jeltzaleen hautagai **Mikel Pagolak** datozen lau urteetarako bere egitasmoa aurkeztuko du. Alboan izango du, hizlari arituko da gainera, **Joseba Egibar** Gipuzko Buru Batzarreko lehendakaria. Ekitaldia 19:30ean hasiko da Jakutegi plazan.

MAIATZAREN 24KO UDAL HAUTESKUNDEAK - UDAL HAUTAGAIK

EAJ-PNV

1. Mikel Pagola Tolosa
2. Maria Isabel Vaquero Montero
3. Jorge Segurado Iriondo
4. David Rosco Jorge
5. Miren Martiarena Barcaiztegui
6. Juan Luis Goikoetxea Benzala
7. Maria Pilar Sarasola Bulman
8. Manuel Mayoz Ostolaza
9. Juan Peñagaricano Sarasola
10. Maria Isabel Zumalacarregui
11. Xabier Belver Pinedo
12. Miren Agurtzane Bastarrica
13. Yon Vaquero Montero

Ordezkoak/Suplentes.

1. Iñaki Goenaga San Sebastian
2. Maria Carmen Arostegui
3. Jose Luis Aramendi Goikoetxea

EH BILDU

1. Ixiar Martiarena Lizarazu
2. Mikel Izagirre Recondo
3. Itziar Artola Bedia
4. Xabier Yurramendi Garmendia
5. Amaia Martin Saiz
6. Aranzazu Fernandez Gutiérrez
7. Manex Alday Igerategi
8. Ainhoa Olano Garmendia

9. Jose Antonio Arozena Iriberrí
10. Mikel Ezeiza Arratibel
11. María Dolores Lasa Garaño
12. Mikel Legarreta Astiasaran
13. Fermín Arguiñarena Otamendi

Ordezkoak/Suplentes.

1. Maider izaguirre Sarasti
2. Garikoitz Albizu Lasa
3. Miren Agurtzane De Miguel

PP

1. Jose Agustín Gilabert Ortega
2. Pedro Moya Jiménez
3. Fernando Enguidanos García
4. María Esperanza Vega Álvarez
5. Araceli Álvarez Prieto
6. Luis Hector Bailon García
7. Enrique Manuel Gacto Muñoz
8. Antonio Bellot Moreno
9. Margarita Luzardo Romano
10. Ana María García Martín
11. María Luisa Nieto Rodríguez
12. Herminia Flores Sánchez
13. Jose Manuel Llaverro Collado

PSE-EE

1. Consuelo Frutos Gonzalez
2. Ivan Haro Marcos

3. Maria Belén Alfonso Cuevas
4. Herme González Morán
5. Maria Teresa Carnero González
6. José Guirado Novo
7. María Pilar García Martínez
8. Luis Javier Pascual Olivera
9. Maria Lourdes Navais Paño
10. Francisco Javier Prado Subiza
11. Antonio Cobo Polaina
12. Paula Torres Busto
13. José Alfonso Guerrero

AULKI ZURIAK (EB-AZ)

1. Jose Luis De Zubicaray
2. Maria Cruz Pascual Sanchez
3. Daniel Lizarralde Aguirre *
4. Virginia de la Parra Arruabarrena *
5. Antonio Alier Laplana *
6. Mireia Romani Campabadal *
7. Robert Poch Hernandez *
8. Susana Prado Serrano *
9. Gorka Garay Sanabria *
10. María de los Angeles Martin *
11. Jose Luis De Zubicaray Oteiza *
12. Maria Nieves Serrano Altimiras *
13. Juan Rivera Alonso *

* (Independiente)

HERRI IZAERA LORTU ZUENETIK 400 URTE BETEKO DIRA DATORREN UZTAILAREN 12AN

Urnietak ere 400. urteurrena ospatzeari ekin dio

Rosa Ayerbe historialariak Urnietaren oroimen historikoa aberastera datorren agiri ugari utzi zituen udalean, joan den astelehenean. "Urnietak, de tierra a villazgo. 1402-1615" liburuaren aurrerapena

ere egin zuen ekitaldi berean. Liburua Lekaion aurkeztuko dute, maiatzaren 6an arratsaldeko 19:30etik aurrera. Mendeurrena dela eta, ekitaldi gehiago iragarri dituzte.

Agiri mordoarekin agertu zen **Rosa Ayerbe** historialaria, eta esker-erak eman zizkion **Mikel Pagola** alkateak, "udal ondarea aberastera datorrelako eta batez ere geure historia ezagutzen lagunduko diguten agiriak direlako. Herri-tarren eskura jarri ahal izango dira, gure artxibozainaren eskue-tatik pasa eta gero". Ayerbe bera ere eskertua agertu zen Udala-rekin: "bere konpromisorik gabe, ezin ahal izango zen bilketa lan guzti hau burutu, 1998an ekin niona".

Ayerbek ziurtatu zuenez, zaila da herria ez den komunitate baten historia egitea, baina ez ezinezkoa. Horretarako, gertuko zein urruneko artxiboetara jo behar dela esan zuen. Horrenbestez, lau artxibategi arakatu ditu goitik behera Ayerbek, nagusiki: protokoloen artxibategia (Oñati), elizbarrutikoa (Iruñea), eta Chancilleria eta Simancasekoak (Valladolid).

Urnietan herri ez zen garaietan, Hernaniren menpe bizi zen batez ere. Bada, Hernaniri dagozkion agiriak arakatu ditu



Mikel Pagola eta Rosa Ayerbe aste honetan egindako agerraldian.

Ayerbek. Protokolo notarialak, helegiteak, herri baten ku-deaketarako hainbat jarduera publiko... Bitxikeria modura Valladoliden hainbat helegite aurkitu dituela adierazi zuen. Urnietak garai hartan komunitate bizia zen datu adierazgarria.

URNIETA, EREDU BESTE HERRIENTZAT
Herri bilakatu zireneko urteurrena ospatzen ari diren herri txikientzat Urnietak eredugarria izan litekeela azpimarratu nahi izan zuen Ayerbek. "Jakín bezate, diru publikoarekin erdi aroko agiritokia osatu dezake-

tela. Beren memoria historikoa berreskuratu edo aberastu dezakete, historialariak prest baitaude nik Urnietarekin egin dudana lan bertsua egiteko. Eta ez dezatela ahaztu, burujabe egin zireneko gertakizuna, euren herriaren historiaren unerik garrantzitsuenak dela".

LIBURUAREN AURKEZPENA

Astelehenean Udal artxiboaren esku utzitako agiritan agertzen den historia du oinarri liburuak, maiatzaren 6an aurkeztuko dena. Eta batez ere, Urnietak bilakatu zeneko prozesu historikoa kontatzen duten agiriak biltzen dira. 1615a, berezia izan zen inondik ere Gipuzkoako herrialdearentzat, orduan lortu baitzuten independentzia makina bat herriek. Hain zuzen, 29 herriek ofizialki 1615eko urtarilaren 26an lortu zuten herri titulua. Urnietak, ordea, uztailearen 12ra arte itxaron behar izan zuen. Kasu bakarra izan zen Gipuzkoa osoan. Horren zergatia eta beste hainbat kontu hitzaldian azalduko dituela adierazi zuen Ayerbek.

"Burujabe egin zeneko gertakizuna, Urnietako herriaren historiaren unerik garrantzitsuenak da"
Rosa Ayerbe

Gaztelaniaz idatzi ziren orduko agiriak, eta Rosa Ayerbek ere gaztelaniaz idatzi du liburua.

EKITALDIK ETORKIZUNEAN

Liburuaren aurkezpenaz gain, hainbat ekitaldi burutuko dira etorkizunean Urnietan, bere burujabetzaren 400. urteurrena ospatzeko. Gertuena, uztailearen 12ko ospakizun handia, herri titulua lortu zueneko, izango da. Alkateak zehaztu zuenez, "Egun handi horretatik aurrera, datozen hilabete eta urteei begira, prozesu bat irekiko da herritarrekin, elkarrekin, ikastetxeekin... eta beste hainbat herri eragileekin batera, Urnietaren izaera eta bertako herritarren sentimenduen inguruko ekimenak aurrera eramateko asmoz".

UDALEKUAK 2015

Urnietako Udalak udalekuetarako deialdia argitaratu eman du. Bijardura eskainiko ditu: **Eguzkitan Blai**, batetik, eta **Kirol Udalekuak**, bestetik. Izena emateko epea maiatzaren 8an amaituko da.

Eguzkitan Blai udalekuak 2003 eta 2011 urte artean jaiotako haurrei zuzenduta daude, eta uztailearen 1etik 30era bitartean antolatuko dira, astelehenetik ostiralera.

Kirol Udalekuak, berriz, 2003 eta 2006 urte artean jaiotakoentzat dira eta kasu honetan, bi ziklo egingo dituzte. Lehenengoa, ekainaren 29tik uztailearen 10era eta bigarrena, uztailearen 13tik 24ra. Udaleku hauetan hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute: herri kirolak, igeriketa, badminton, munduko jolasak, snorkel, beisbala, tenisa...

Bi udalekuen ordutegia goizeko 10:00etatik eguerdiko 13:00etara izango da. Dena den, zaintza bereziak eskatu ahaliko dira goizeko 08:30etik eguerdiko 13:30ak arte. Partaide kopurua mugatua izango denez, Urnietako neska-mutilek lehentasuna izango dute.

Bi udalekuak euskaraz izango dira.

IZEN-EMATEA BERTAN BULEGOAN EDO LEKAION

Bertan bulegoan, astelehenetik ostiralera 7:30etik 14:30era edo Lekaion, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Izen-emate orria eta ordainagiriaren kopia haurraren izen abizenekin batera hurrengo maiatzaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira.

AITA GARAYOA ABESBATZA ETA MUSIKALIS GANBERA ABESBATZA



Aurreko larunbat iluntzean **Aita Garayoa abesbatza** eta **Musikalis ganbera abesbatza** kontzertua eskaini zuten San Miguel elizan. **Iñaki Car-**

camo zuzendariaren esanetara Johann Michael **Haydn** musikari handiaren "Vesperes in fa eta missa Sancti Gothardi" obra eskaini zuten.

Haiekin batera **Monika Redondo** biolin jotzailearen eta **Ana B. Garcia** organu jotzailearen lana azpimarratu beharra dago.

Ardo dastaketa Peña Santakrutz elkartean



La Guardiako Launa bodegako ardoak dastatzeko aukera izan zuten.

Aurreko ostegunean, apirilak 23, Peña Santakrutz elkartean La Guardiako Launa bodegako ardoak dastatzeko aukera izan zen.

Bodegatik bertatik iritsitalak 23, Peña Santakrutz elkartean La Guardiako Launa bodegako ardoak dastatzeko aukera izan zen.

Postal tailerra Basteron, mendeurrenaren harira



Gartxot Arregi ezkerrean, arratsaldeko saioan.

Gartxot Arregik gidatuta, aurreko larunbatean Bastero plazan postalak egiteko tailerra antolatu zuten. Bertan herrikideek aukeratutako ar-

gazkiekin mendeurreneko logoa zeramatzaten postalak egin zituzten. Ekimena berriro martxan jarriko dute Argazkialdian.

Gure Esku Dago taldearen ekimena Zumea plazan



Jostunak lanean aritu ziren plazan bertan.

Aurreko asteburuan Euskal Herri osoan zehar **Gure Esku Dago** ekimenak erabakitze eskubidearen aldeko “Joste eguna” antolatu zuen, tartean Andoainen. Zumea plazan txalaparta doinuekin hasiera eman zioten ekitaldiari eta bertan hainbat jostun

herritarrek esaldiez eta irudiz marrazturiko oihal zatiak josten aritu ziren. Hurrengo hitzordua ekainaren 21ean izango da hiriburu bakoitzean, hautesontzi erraldoiak eraikiko baitituzte guztien artean jositako oihal-zatiekin.

“Irabazi Ganar Andoain” eta “Ganemos Andoain” aurrez aurre

Irabazi taldearen helegitea, Ganemos salatuz

Apirilaren 22an Udal hauteskundeetarako zerrendak ofizialki argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta bertan Andoainen ia izen bereko bi hautagaitza agertu ziren: “**Irabazi Ganar Andoain**” eta “**Ganemos Andoain Irabazi**”. Izenburuari dagokionez zerrenda bikiak direla esan daiteke. Eta izenaren atzean, ideologia politiko antzekoa duten bi talde ezberdin dira. Guztiak ere IU-Ezker Batua koaliziotik datoz. Euskadin zatiketa handia egon zen koalizioaren baitan, hiru zatitan hautsi baituzten. Iraganeko zatiketa horrek Andoainen behintzat bizirik dirau.

Deigarriena ‘Ganemos Andoain’ koalizioaren aurkezpena izan da, herri mailan ez baitute inolako deialdi edo ekimen publikorik egin. Irabazik, aldiz, asanblada irekiak eta etxebizitzari buruzko jardunaldiak antolatu ditu.



Zerrendak argitaratu eta gero, Aiurri bi hautes-zerrendekin harremanetan jartzen saiatu da. Equo, IU eta beste zenbait mugimenduk osatzen duten “Irabazi Ganar Andoain” taldeak Aiurriri jakinarazi dionez, helegitea aurkeztu du “Ganemos Andoain Irabazi” hautes-zerrendaren aurka. **Jorge Mourinho** Irabaziko alkategaia da eta hilabete luzez hauteskundeak prestatzeko lanetan aritu dira. Egoera honetan sortuko den nahasmena salatu nahi du, “ia izen bereko bi hautagaitza egoteak hautesleak

nahastea besterik ez du ekarriko”. Andoaindar askorentzat bezala, Mourinhorentzat ere ezustekoa izan da hautes-zerrenda berri horren aurkezpena: “Hilabetez jardun dugu lanean herriko eragile sozialetan batera. As-teazkenean Javier Madrazoren sokako zerrenda horren berri jakin genuenean argi ikusi genuen zuzenean gure aurka datozela. Guk udal ordezkariarik ez lortzea helburu dute”.

“Ganemos Andoain Irabazi” taldearen lehen postuetan **Olga Hernandez** irakaslea eta **Sergio Barreiro** zinegotzi ohia ageri dira. Ez diote gaur gaurkoz Aiurriren deia irantzun.

2011ko Udal hauteskundeetan Ezker Batua-Berdeak koalizioan Mourinho, Hernandez eta Barreiro zerrenda berean aurkeztu ziren. Lau urte berandua go zaituta agertu dira ia izen bereko bi hautes-zerrendetan.

MAIATZAREN 24KO UDAL HAUTESKUNDEAK - UDAL HAUTAGIAIK

EAJ-PNV

1. Maria Jose Izagirre Iturzaeta
2. Imanol Goenaga Egibar
3. Iñaki Egibar Larrañaga
4. Gregorio Olasagasti Arzallus *
5. Ainhoa Elola Aramburu
6. Joseba Poza Aranzadi
7. Joseba Andoni Elozegui Ezcurdia
8. Maria Soledad Irigoras Balda
9. Gorka Artola Beobide
10. Idoia Mikelez Alonso *
11. Jose Antonio Rivas Martin
12. Maria Nieves Soriano Blanco
13. Maria Esther Arizmendi Brit *
14. Aritz Amondarain Ibaguren *
15. Jose Luis Huici Leiza
16. Nerea Arregi Ormazabal
17. Iñaki Irulegi Unzalu

Ordezkoak/Suplentes:

1. Eurne Brit Ponce *
2. Andoni Baltasar Aguirrezabalaga
3. Antonio Guedejo Perez

PP

1. Asun Guerra Alonso
2. Antonio Martin Agudo
3. Jose Maria Jareño Ayuso
4. Isabel Arroyo Fernandez
5. Eliseo Manuel Gomez Blanco
6. Juan De Dios Bajo Garcia J
7. Juan Maria Jaen Sanint
8. Juan Obregon Gonzalez
9. Maria Paloma Bescos Menendez
10. Maria Paz Orti Alfonso
11. Francisco Gomez Mijangos
12. Jose Tomas Serrano Gabriel
13. Jose Gomez Abuin
14. Luisa Gonzalez Martinez
15. Carmen Rodriguez Vazquez
16. Mariano Arcos Quevedo
17. Maria Del Mar Lopez Moreno

PSE-EE

1. Maider Lainez Lazcoz
2. Alvaro Gonzalez Cossio
3. Ascension Parron Peguero
4. Daniel Garcia De La Calle
5. Petra Romero Pozo
6. Antonia Landa Ayerbe
7. Oscar Mendo Gonzalez
8. Jose Francisco Muñoz Muñoz
9. Raquel Caballero Madrid
10. Robinson Rafael Ariza Sarmiento
11. Maria Angeles Exposito Lizarribar
12. Oscar Garcia De La Calle
13. Maria Almudena Lamaza Vadillo
14. Eduardo Pelaez Castro
15. Marino Rodriguez Alcon
16. Luisa Fuentes Marquez
17. Estanislao Amuchastegui Arregui

EH Bildu

1. Ana Carrere Zabala
2. Pedro Unanue Orcoven
3. Ainara Rodriguez Zalacain
4. Jon Zulueta Berastegi
5. Esti Mugika Tolaretxipi
6. Jose Agustin Alberro Irizar
7. Uxune Tena Ugarte
8. Roger Aira Sanchez
9. Olatz Esnal Eizmendi
10. Pedro Maria Barandiaran Ezama
11. Maria Teresa Etxeberria-Arteun
12. Francisco Aznar Bellido
13. Maria Elena Lertxundi Etxezarreta
14. Iñigo Pajares Merino
15. Ikerne Sarasola Bereciartua
16. Julian Lopez Aracama
17. Miren Lopez De Munain Txapartegi

Ordezkoak/Suplentes:

1. Iñaki Alzuguren Almorza
2. Rocio Benitez Rubiños
3. Beñat Altuna Iraola

Irabazi - Ganar Andoain

1. Luis Jorge Fernandes Mourinho
2. Maria Antonia Abello Vila *
3. Pedro Maria Elustondo Zalacain *
4. Olga Martin Garcia *
5. Joaquin Godoy Rolo
6. Nieves Brea Amurrio
7. Honorio Martin Rosa *
8. Maria Isabel Gonzalez Godoy *
9. Alvaro Irastorza Icaceta
10. Josefa Canales Collado *
11. Elias Diaz Arriba *
12. Lorena Isabel Colas Canales *
13. Miguel Godoy Porcel *
14. Laura Fernandes Canales *
15. Rene Velazquez Hernandez
16. Natividad Godoy Porcel *
17. Miguel Angel Ruiz Barea

Ordezkoak/Suplentes:

1. Carmen Porcel Lopez *
2. Juan Jose Martin Sanchez *

Ganemos Andoain Irabazi

1. Olga Hernandez Montero
2. Sergio Barreiro Guzman
3. Isabel Josefa Lopez Aulestia
4. Juan Antonio Erauncetamurguil
5. Elias Maestro Ruiz
6. Maria Isabel Postigo Espeso
7. Guillermo Hernandez Montero
8. Maria Emilia Cazorla Merodio
9. Jose Manuel Del Teso Florez
10. Fadili Hamuad Larbi
11. Dolores Delgado Ruiz De Arevalo
12. Luis Miguel Malalana Fajardo
13. Maria Del Pilar Marcos Gonzalez
14. Juana Silvestre Sancha
15. Valeriano Hernandez Olaya
16. Ana Maria Madarieta Aboitiz
17. Gaspar Bernardo Barreiro Piñeiro

* (Independiente)

HITZ-GEZIDUNAK

	Leizeak	* IRUDIKO ESTATUA	Lokarri sendoak	Noranzkoa
			Poltsikoa	Valentziako hiritar
	Bakan			
	Zuhaitz mota			
Galdetzaille bat	Bururatuak	Zikoitz		
Diplomatiko mota	Naramak	Sufrea		
			Aneto, bokalik gabe	
			Sodioa	
Zelai		Nafarroako herria		
Ipar EH-n, inguru		Bizkaieraz, noa		
			Barazki hostotsua	
			Nasa, moila	
Pl., fruitu mota			1	
Begirada			Kontsonante bikoitza	Modu atzizkia
		Dardarak		
		Kontsonantea		
Agiri mota			Barre	

PASARTE KODETUA

Platon (K.a. V.-IV. mendeak) filosofo greziarraren gogoeta bat azalduko zaizu ondoko lauki guztiak bete ondoin. Joko honetan, zenbakiak hartu dute letra edo hizkien ordea. Letra bat, zeinek berea, hartzen du gehienez zenbaki bakoitzak, eta batzuetan ez dira letra guztiak azaltzen. Zenbaki batzuei dagozkien letrak eman ditugu lagungarri.

5	20	19	7	13	5	12	14	18	15	12	
1	9		17	12		12	4	1	7	12	14
5	12	14	18	15	12	7	1	15		2	18
7	7	19	9	3	1	5	12	7	1	15	
13	15	17	13	7	19	15	12		16	18	7
12	7	19	1	15		4	19	17	1	7	3
1	5	12	7	1	15		1	2	12	19	5
9	12		4	12	19	9	19	3			

1	E	11
2		12
3		13
4		14
5	T	N
6		16
7	R	D
8		18
9		19
10		20

HIEROGLIFIKOA



Polinesiako hizkuntza

ERANTZUNAK

Maoriteraz

Platon

Txiratasuna ez da aberastasunaren emaitza baizik. Ondorioa, guriaren biderketaren murrizketaren

I	R	I	R	I	R	A	T	K	A	
K	A	R	A	K	A	I	K	A	O	S
	I		K	A	O	K	O	K		
A	Z	A		O	N	A	R	A	B	
Z	T	N	A	L		U	V	L		
T	N		L	U	S	T	N	O	K	
N	E	K	E	Z		O			N	
A	L	A	K	A	M					
R	A	V	K	B						
O	V	O	S	O	K					
N	S		K							



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Bolivia (IV)

Aduana iluna zen, eta txabolatan “El condor pasa” doinuak entzuten ziren; 30 bat lagun ginen autobusean joan ginenak eta konturatu ginen Aduanako denak mozkortuta zeudela. Gaua hotza zen eta lo egiteko tokirik ez. Urdailetik operatuta zegoen aduanero batek eskaini zigun bere kargu zegoen gela handi bat; eskertu genion eta bertan lo egin genuen. Urte zaharra zen eta ospatu beharra zegoen. Brasilgo jendea, Hego Amerikakoak, Europatik neska suitzar bat, horiek bildu ginen... Kanpoan kazkabar erasoak izan genituela gu babesean. Hurrengo goizean, mozkorra pasata, bere tokian zeuden pasaporteak seilatzeko. Autobusa hartu eta La Paz hirira atera ginen. Konturatu ginen andre indijenak mantak zeramatzatela azoka edo feriaren batean saltzeko eta guardiak sartzen zirela mantak kentzera, eta sartzen zirenean norbaitek txibatazoa jotzen zuela.

Urkosko jesuita elkartea agurtu, osatu, indartu eta Anjel eta biok atera ginen trenean Peruko ertzero, Punora; lau mila metro altuera du herriak. Eta ondoan dauka aintzira, laku bat, Titikaka deritzona, laku handia, eta bertako uharteetan indijena asko bizi da. Trenez atera eta munduan tren batek har lezakeen altuerarik handienen tokian gelditu egin zen ikusmira gozatzeko: mendi denak elurrez zurituta zeuden. Trenez jende oso pobrea ibiltzen da; geltokietan mila saltzaile azaltzen dira. Heldu gara gau ilunean Punora. Eliz batera jo genuen eta galdetu genuen lo egiteko leku segururen bat ba ote zegoen. Kale horretan bizi zela gotzaina eta seguru emango zigula tokia, eta guk sinistu...

Anjelek eta biok erabaki genuen emakumeei esatea guk gordeko genituela mantak eta azokara iristean itzuliko genizkiela. Eta guardiek harrapatzen bagintuzten ba kartzelara gu joango ginela... Hala, suertez, dena ondo atera zen, eta horretan La Paz kapitalera iritsi ginen. Ez ahaztu etxera egunero idazten nuela, eta aita oinez joaten zela bere lehengusuengana kartarekin. Harrituta nago nire buruarekin nola egin nuen egunero idazte hori. Eta La Pazera gindoazela esan nion Anjeli: “ba al dakik gure lehengusuak non bizi diren ez dakidala?” Beren izena bai, Elorza anaiak, herria Ucacha, eta probintzia Córdoba, eta kitto. Herriak badaude bere etxeak 50 kilometrotara daudenak, eta biderik gabe. Anjel kezkatuta gelditu zen: ezagunak izango ahal dira Ucacha herrian!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



SANTAKRUTZAK 2015 | APIRILAK 30-MAIATZAK 3

Herri lasterketaren aurretik, patinen gaineko lasterketa

Irristaka taldeak Zumeatarra elkartearekin eta jai batzordearekin batera lehen irristaketa edo patinaia lasterketa antolatu du. Korrikalariak dagoeneko jakin badakite maiatzaren lehenean lasterketa iza-

ten dela. Bada, beharbada aurrerantzean tradizio bilakatuko da aurreko lehen aldiz egingo duten patinen gainekoa. Goizeko 09:30etan hasita, korrikalarien ibilbide berean arituko dira irristaketan.

Irristaka.org webgunean argiro ikus daiteke aurreko deialdiaren nondik norakoa. Bertan eman behar da izena, gainera, parte hartu ahal izateko. Herrikoia izango da, lagun girokoa. Lasterketaren antolakuntza bi herrikide ari dira burubelarri, biak ere patinatzaileak. Igor Otaegi lasartear-andoaindarra eta Aitzol Zubiarrain andoaindarra. Parte hartzeko gonbitea luzatzearekin batera, lasterketaren hainbat xehetasun eskaini dizkiote Aiurri astekariari.

Nolako ibilbidea da patinatzaileentzat?

Igor Otaegi: Ibilbide berari sei itzuli eman beharko dizkiote, alde horretatik eskarmentua duen patinatzailearentzat ez da oso erakargarria, leku berean bueltaka arituko baitira. Baina aurtengoa horrela antolatu da, ibilgailuen trafikoa ez oztopatzearen. Andoain herriak alde aldetik ez du aukera handirik ematen.

Aitzol Zubiarrain: Lehenengo edizioa denez, hasiberrientzat ibilbide erraza egokitu dugu. Helburua lorgarria izatea lehenetsi dugu. Jaiaren egitaraua ere ekitaldi beterik dator, beraz, lasterketa goizean goiz hasiko da. Aurreko horrela egingo dugu proba.

Sufritzeko ez baizik eta gozatze-ko moduko ibilbidea izango da orduan, ezta?

A.Z. Bai, aldapa apur bat badu, baina oso laua da. 180 graduko bi bihurgune ditu: Bata, Kaleberrian Lankide Aurrezki Kutxan parean eta bestea Karrikako semaforoan.

I.O. Zumea plaza ingurutik ikuspegia ikusgarria izango da, lasterkariak abiadura hor hartuko dute eta. Badu bere arriskua ere. Ikusleek, beraz, argi ibili beharko dute. Oinezkoak errepidera gehiegi hurbilduz gero, arrisku egoerak sor daitezke. Erne ibiltzea komeni da.



Igor Otaegi eta Aitzol Zubiarrain andoaindarrak, Irristaka taldeko eta lasterketako antolatzaileak.

Herritarrentzat proba erakargarria dela iruditzen al zaizue?

I.O. Horrela izateko saiakera egiten ari gara. Doakoa da parte hartzea, gainerako proba gehienetan ez bezala. Amaieran, gainera, parte hartzaileen artean zozketa bat egingo da. Lasterkariarentzat ibilbidea errepikakorra izan daiteke, baina aldi berean herritarrek inguruan animatzen izango dituzte. Proba erraza da, patinatzen dakien edonork parte hartzeko modukoa.

A.Z. Ikusleen tokitik ikusgarria izango da. Andoaindarrei, oro har, lasterketa ikustera irteteko gomendatuko nieke.

Lasterketak izaera herrikoia izango duzuela argi utzi nahi duzue.

A.Z. Lasterketan ez da denborarik neurtuko, eta beraz ez da sailkapenik egongo. Nork irabazi, hori ez da garrantzitsua izango.

I.O. Bai, eta lehenengo doanak azken doana harrapatzen badu ere, ez dugu lasterketatik kanpo utziko.

Herrikoia izatea nahiko geline, baina bestalde ikusleek goza dezaten estatu mailan punta-puntan dabilzan patinatzaileak bertan izango dira.

Ibilbidea laua dela ikusita, hasiberriei bereziki parte hartzeko gonbidea luzatu nahiko zeniekete?

A.Z. Bai, horixe da asmoa. Patinen gainean moldatzen eta frenatzen dakiena agertu daitezela, kaskoekin babestuta. Jakintza maila gutxiarekin nahikoa izan daiteke, ez da beharrezkoa inongo prestaketa berezirik egitea.

I.O. Bidegorrian patinetan dakien edonork parte har dezake. Ez du arazorik izango. Probak ez baitu izugarritzko fisikoa izatea eskatzen. Ibilbidea laua izanda, ez dute prestaketa bereziren beharrik izango.

Beroketak egiteko aukera izango dute?

I.O. Udalarri eskatu zaio Ubiarteko atletismoko pista utzeko, trafikoa azkenengo mo-

mentura arte ezingo delako itxi. Partaideek bertan berotzeko aukera izango dute, eta baita ondoren duxatzeko aukera ere.

Zenbat parte hartzaile daude orain arte?

A.Z. 50 pertsonetik gora eman dute izena. 100 lagunera iristean izen ematea itxitzat emango dugu. Ibilbidearen ezaugarriak kontutan hartuta hartu dugu erabaki hori.

I.O. Eguraldiak proba asko baldintzatu dezake, eta jendeak horren arabera parte hartu edo ez erabakiko du. Lasterketen denboraldia berriki hasi da, eta jendeak Santakrutzetako proba prestaketa saio modura har dezake.

Herriko merkatariek laguntza eskaini dizuetela jakin dugu.

I.O. Bai, opariak eman dizkigute zozketa egin ahal izateko. Eskerrak eman nahi dizkiegu, eta haiek egindako ekarpena lerrootan nabarmendu nahiko genuke.

“Lehenengo edizioa denez, hasiberrientzat ibilbide erraza egokitu dugu. Helburua lorgarria izatea lehenetsi dugu”

Segurtasunaz nor arduratuko da?

A.Z. Hasiera batean, Irristaka taldea arduratuko da.

I.O. Zebrabide eta bidegurutzetan jendea jarriko dugu; guztira, hogeita hamar lagun inguru.

Irristaka noiztik dago martxan?

I.O. Duela hiruzpalau urte sortu zen. Euskal Herrian zehar talde asko daude orain: Donostian, Iruñian, Bilbon, Bergaran, Gasteizen... Izaera herrikoia duten taldeak sortzen hasi dira; horietatik asko ikastaroenetik sortutakoak.

Patinajean hasi nahi duen bati zein aholku emango zenieke?

I.O. Bakarrik ez hastea. Eskiatzen ibili den jendeak sentsazio beretsua du patinen gainean. Erortzea erraza da, eta zailena ez da azkar ibiltzea, mantso ibiltzea baizik. Oso azkar joan gabe ere, bidean oztoporen bat edukiz gero, gelditzen jakin beharra dago. Modu naturalean erreazionatzen jakin behar da. Teknika eta konfidantza beharrezkoak dira, eta horretarako ikastaroak laguntza handikoak dira.

Non patinatzen duzue Andoainen?

A.Z. Leku finko eta lasaierik ez dugu ibiltzeko. Kiroldegian talde bezala entrenatzeko eskaera egin dugu, baina ez dugu onarpenik jaso.

I.O. Entrenatzeko zaila dago. Industrieguneetara enpresak itxita daudenean joan behar da, errepidera trafikoa gutxi dagoenean... Arriskuak hartu behar izaten ditugu beti. Esaterako, Tolosatik Ikaztegiatara errepidetik joaten gara, bidegorrian oinezko asko izaten delako. Istripuak gertatu izan dira. Gaur gaurko legedirik ez dago.



SANTAKRUTZAK 2015 | APIRILAK 30-MAIATZAK 3

Ospakizun betean aritzeko asteburu luzea aurretik

Koadrilen eguna igarota, jaiez gozatzeko hamaika aukera daude ostegunean hasi eta igandera arte. Adin guztiak kontutan hartu dituzte egitaraua egiteko garaian.

Ostegun honetan jaiari indartsu berrekin nahi diote. Pregoiarekin hasi, elektrotxarangarekin jarraitu eta dantzaldiarekin gozatu ondoren, goizaldeko lauretan soka saltoan egiteko deialdia egin dute.

Apirilak 30, osteguna

Jaien hasiera

- 16:00** Haur pregoia Zumea plazan. Ondoren plazan bertan, txokolate jatea, judo eta karate erakustaldiak eta jolasean aritzeko puzgarriak.
- 19:00** Kalean zehar buruhandi eta erraldoiak Zumea plazatik.
- 19:00** Basterotik Gora Kaletxiki txaranga.
- 19:00** Zumeatarra elkartearen danborrada.
- 19:30** Pregoa Kale Nagusiko dendari ohien eskutik.
- 20:00** Bekoplazan txosnen irekiera.



- 23:00** Elektro txaranga txosnatan hasita.
- 23:30** Bekoplazan berbena doinuekin dantzaldia: Sardeska eta 3gabe2.
- 04:00** Soka salto txosnatan.

Maiatzak 1, ostirala

Baby Band jaialdi berezia

- 09:30** Patinatzaileen lehiaketa.
- 10:00** Diana.
- 10:30** Kros herrikoia.
- 11:30** Txalaparta emanaldia espigoian. Ondoren txalaparta tailerra.
- 11:30** Leizaur parkean haur krosa. Ondoren, txirrindulari lasterketa.
- 12:30** Basteron Baby Big Band saioa.




- 17:00** Txalaparta ibiltaria tabernaz taberna.
- 17:30** Erreka jaitsiera.
- 18:00** Bekoplazan herri danborrada.
- 18:30** Bizikleta festa haurrentzat Zumea plazan, 2-10 urtekoentzat.
- 19:00** Txistulariak Txalaka tabernatik hasita.
- 19:30** Taberna arteko pintxo lehiaketa.
- 23:30** Bekoplazan Estricalla, The Riff Truckers, Osso.

Maiatzak 2, larunbata

Auzo bazkaria

- 09:30** Dultzaina topaketa. Haur arrantza lehiaketa Espigoian.
- 10:00** Artisautza azoka Zumea plazan.
- 12:00** Basteron hasita kantu kalejira eta txalaparta ibiltaria.
- 12:30** Urkiren kalejira eta emanaldia Zumea plazan.
- 14:30** Auzo bazkaria, eta La Jodedera.
- 17:00** Haur jolasak Zumea plazan.
- 17:30** Basteron hasita Soinuak kalejira.
- 18:30** Pailazoak haurrentzat.
- 19:00** Sardin Jatea Zumea kalean.
- 19:30** Bakailao txapelketa Kale nagusian. Irunberri fanfarrea kalez kale.
- 22:30** Peña Santa Krutz elkartearen danborrada.
- 23:30** Berbena txosnatan.
- 23:30** Batukada: Zozongo. Basteron hasita eta txosnatan amaituz.



- 01:00** Bekoplazan Ingo Al Deu.

Maiatzak 3, igandea

Santa Krutz eta elegante eguna

- 10:00** Dultzaineroekin Diana.
- 11:00** Ikurriñaren jaitsiera, eskopeteroak lagunduta.
- 11:00** Ezpata dantza, Agintariei harreara.
- 11:30** Meza Santua Santa Krutz elizan.
- 12:00** Ezpata dantza, brokel dantzak.
- 12:30** Andoaingo trikitilariak.
- 12:30** Txakoli dastaketa eliza parean.
- 18:00** Sagardo lehiaketa Zumea plazan.



- 18:00** Zumea plazan taloak "Basataloak" taldekoen eskutik.
- 18:00** Kalejira elegantea.
- 22:00** Bekoplazan txosnen itxiera eta Elegante egunaren amaiera.

Egitarau osoa internet sarean:

@aiurri | www.aiurri.eus

santakruzak2015.wordpress.com

111AKADEMIA:REN SARIA 2014

Maiatzaren 7an, ostegunarekin arratsaldeko 19:30etan

Andoaingo Bastero Kulturgunean.
EKITALDI IREKIA.

Idazle saritua:

Mikel Peruarena

Su zelaiak
eleberriagatik





SANTAKRUTZAK 2015 | APIRILAK 30-MAIATZAK 3

Jaien hasiera ederra koadrilen egunarekin

Jai Batzordeak aurten koadrilen eguna astebete aurreratzeko apustua egin zuen eta festazaleek ez zuten hutsik egin. Ezta eguraldiak ere. Giro eguzkitsua garrantzia handikoa izan zen ospakizunean.

Ostegun honetan hasi eta igandera arte ospakizun ugari burutuko dira. Eguraldiaren aurreikuspenetan giro lainotsua aipatzen badute ere, ez da euririk aurreikusten.





SANTAKRUTZAK 2015 | APIRILAK 30-MAIATZAK 3



URNIETARRAREN BIOGRAFIA LIBURUA AURKEZTU ZUTEN AURREKO ASTEAN MARTIN UGALDE KULTUR PARKEAN

Hiazinto Fernandorenaren ibilbidea hizpide duen liburua

Jendez lepo bete zen Martin Ugalde parkeko areto nagusia, Hiazinto Fernandorenaren biografia liburuaren aurkezpenean. "Iaz omenaldia egin zitzaionean bezala, jende andana etorri da gaurkoan

ere. Ikusten da Hiazintok egindako lan izugarria ez dela ahazten, oso maitatua dela". Apirilaren 21ean Koro Etxeberriak hitz horiekin hasi zuen liburuaren aurkezpen ekitaldia.



Liburua osatzen aritu den lan taldea Hiazintorekin: Xabier Lasa, Koro Etxeberria, Iñaki Elortza, Maria Jesus Iartza eta Pello Aranburu. Martin Ugalde parkeko ekitaldi aretoa jendez bete zen.

Euska gintzan eragile izan diren eta izaten jarraitzen duten makina bat pertsonen musuak, besarkadak eta zorionak jaso zituen ekitaldian zehar **Hiazinto Fernandorenaren**. Emozioari ezin eutsi izan zion urnietarrak maiz.

Koro Etxeberriak liburu argitaratu izanaren arrazoia azaldu zuen, Hiazinto berari zuzenduta: "Hiazinto, pertsona eredugarria zara euskararen aldeko aha-

leginean; isilik jardun duzu gehienetan, eta iruditu zaigu zure ibiliak eta lorpenak jaso beharra zeudela. Euskal Herriaren historiaren zati bat zara, eta gure hurrengo belaunaldiak jakin behar dute hori dena".

Euskadi Irratian kirol emanaldietan ahots ezaguna den eta liburuaren idazketan parte hartu duen **Iñaki Elortzak** hartu zuen hitza segidan. Pasadizo pertsonal baten bidez Hiazintoren

nortasunaren alderdia azpimarratu zuen, euskarara pertsonak erakartzeko eduki duen gaitasun berezia, alegia: "Iribar atezain handiak, bere omenaldian lortutako hamaika milioi pezetak komunikabideetan kiroletan euskararen erabilpena bultzatzeko utzi zituen, lehen hiztegia egiteko. Orduan, zenbaitzuk talde batean bildu ginen euskarazko terminologia osatu eta hiztegia argitaratzeko. Artean ni ez

nintzen kazetaria, baina bilera horietako batean, Hiazintok magnetofoi zahar bat hartu eta Atotxako zelaira joatera animatu ninduen; nire ahotsarekin, erretransmisioak euskaraz grabatzen nituen igandero. Astelehenean, elkarrekin entzuten genituen grabazioak. Halako batean, Herri Irratian sei orduko euskarazko programazioa ezarri nahi zuen Oterminek hots egin zidan, grabazio bat eskatuz. Ha-


rrezkero, irratiko esataria naiz. Mila esker, Hiazinto".

Azkenik, **Pello Aranburu** idazleak liburuaren edukia deskribatu zuen. Azpimarratu nahi zuenez, Hiazintok berak idatzitako atalak dauzka liburuak, bere haurtzarora eta gaztarora agertzen dutenak bereziki. Horatik aurrera, hoguei pertsonen eskua ageri da: batzuk atalak idatziz, besteak testigantza emanez.



FELIX ETXEBERRIA:

"1962an ezagutu nuen, Elgoibarren bertako ikastola sortzeko asmotan hasi ginen. Herriz herri asmo horrekin genbiltzanak, euskaltzaleak bai, baina langile hutsak ginen, formazio gabeak. Aldiz, Hiazinto pertsona jantzia zen. Bera izan genuen gidari, berak ireki zizkigun ateak, Euskal Herriko lehen ikastolak irekitzen joan gintzen. Esaldi batekin nola definituko nukeen Hiazinto? Hara: bera izan zen frankismoko urte zail haietan, gu bezalako euskaltzale ezjakinei euskararen aldeko egarria asetzen jakin zuen pertsona".



MILA ETA KARMELE MUJIKA:

"30 urte dira joan ginela gure jaioteritik, Urnietatik. Baina betidanik ezagutu dugu Hiazinto, eta nahiz eta elkarrengandik urrun bizi, beti mantendu izan dugu harremana. Oraindik ere, tarteka, etortzen gara berari bisita egitera. Guretzat zuzendari izpiritualaren parekoa izan da. Bere nortasuna egin zaigu azpimarragarria betidanik. Iraganean, euskararen alde lanean ari zela bagenekien zer edo zer, baina azken urteetan ari gara jakiten euskarazko goratzeko zenbat egitasmo eraman dituen aurrera".



JUANITO DORRONSORO:

"Saturrarango seminarioan elkar ezagutu genuen, eta elkarrekin jardun apaiz egin ginen arte. Nahiko bide bertsuan ibili ginen harrezkero ere, hura Lazkara eta ni Gaintzara destinatu gintuzten arren: Goierri aldean Gaztedi elkartean, fundizioan lanean, ikastolen mugimenduan... Hiazintok mereziak dauzka omenaldiak, liburuak eta gainerakoak. Berak ilustratzen du ederki asko, Euskal Herrian azpitik, isilik eta umil, egin izan den lana. Inongo ohorerik gabe eta korronte ofizialen kontra"



NEKANE AUZMENDI:

"60ko hamarkadaren hasieran, magisteritza ikasketak bukatu, oposaketak gairatu eta uda hartan bertan izan nuen Hiazintoren berri. Hirugarren pertsona baten bitartez, titulua lortu genuen batzuk, oharra jaso genuen: gurekin hitz egin nahi omen zuen. Egin uko funtzionario izateari, eta zatozte ikastolara. Andereñoak behar ditu euskarazko irakaskuntzak, adierazi zigun garbi. Eta kasu egin genion. Geroxeago ere harremana mantendu genuen, berak antolatzen zituen udalekuen eta pedagogia ikastaroen bitartez".



MALORES ETXEBERRIA:

"Lazkaomendiko ermitan sermoia emanez ikusi nuen lehen aldiz. Gordailun lanean izan nuen hurrena. Gerora, Hernaniko udaletxean sartu nintzenean, hantxe ari zen bera itzultzaile lanetan. Bera bezalakoek martxan jarritako ekimenei segida ematea tokatu zaigu beste batzuei".

PELLO ZUBIRIA:

"Euskararen aldeko katean, gure aurreko belaunaldia ordezkatzeko du Hiazintok. Oso garai konplikatu egokitu zitzaizkien aurreko horiei".



KIROL ALBISTEAK

Omenaldia eta garaipena Ubitarte zelaian



Ander Lopez Vazquezek partidaren hasieran Joxean Huizi Euskaldunako lehendakariaren eskutik oroigarria jaso zuen.

Emozioz beteriko hiru partida geratzen zaizkio Euskaldunari. Ohorezko mailara igotzeko bidean partida bakoitza hil ala bizikoa da. Aurrekoan Hernaniren aurkakoa gogoangarria izan zen: emozioa eta gol ugari. Partida hasi aurretik klubak Ander Lopez Vazquez jokalaria omendu zuen, 19 denboralditan jokalaria gisa jardun eta gero. Kirol bikaintasunaren eredu paregabea dela diote klubeko arduradunek. Lagunek eta jokalariek ere parte hartu zuten omenaldian.

AZKEN TXANPA

ERREGIONAL PREFERENTEA

LIGA, 1. MULTZOA. EMAITZAK:

27. jardunaldia

Euskalduna 4-3 Hernani
Baskonia 3-0 Urnieta

SAILKAPENA:

26. jardunaldia eta gero:

1. Euskalduna	64
2. Orioko	61
3. Baskonia	54
4. Urnieta	51
5. Allerru	47

DATOZEN JARDUNALDIAK:

28. jardunaldia

Maiatzak 2-3:
Hondarribi-Euskalduna
Urnieta-Lengokoak

29. jardunaldia

Maiatzak 9-10:
Euskalduna-Mariño
Urnieta-Allerru

30. jardunaldia

Maiatzak 16-17:
Pasaia-Euskalduna
Orioko-Urnieta

Ganbararen partida erabakiorra Allurralden



Aurreko asteburuko emaitzak:

Lizeo 73-52 Ganbara SenM
Ganbara KadM 36-34 Aloña Mendi
Ganbara InfM 45-17 Aldapeta

Larunbat honetan, Andoainen:

Ganbara senior taldeak asteburu honetan igoerako ligaskan garrantzia handiko partida jokatu du. Zorte on!

GRAVNIko finaletik kanpo

Gipuzkoa 17-40 Bizkaia

Maiz-Loitegi.
GRAVNI txapelketa. 22 urte azpikoa.

Lastima, denboraldiko partida kaxkarrera jokatu eta gero finaletik kanpo geratu da Loitegi urnietarra.

Amonarriz podiumetik gertu

Zarautz. Jubenilak. Apirilak 26:

1. Oier Iburguren (Atracciones Sanz)
4. Ander Amonarriz (Andoaingo)
12. Peio Manterola (Andoaingo)
24. Jokin Alberdi (Andoaingo)
59. Koldo Velasco (Andoaingo)
62. Iñaki Gomez (Andoaingo)
70. Adrian Alamo (Andoaingo)



Urnietako senior mutilak denboraldiko azken txanpan



Urnietako senior mailako neskak aise irabazi dituzte azken bi asteburueta-ko partidak. Nagusitasuna erakutsiz, gainera, partidaren hasieratik bukeraraino. Ane Oruna eta Irati Zinku-negik sartutako goleak, taldearen joko aldaketa erakutsi zuten. 34-20 markagailuan horrela itxi zuten denboraldia: "Taldeak modu horretan eman dio amaiera, hasierako zapore gazi-gozoa guztiz gozoa bihurtzea lortu duen talde gazte eta etorkizun beterikoa izanik". Bestalde, Urnietako senior mutilak Andoaingo taldearen aurka berdinketa lortu zuten. Urnietarrek

ez zioten modurik onenean ekin, eta amaieran bi goleko aldea lortu bazuten ere, ez zuten aldea mantentzea lortu. Lau partida dituzte aurretik euren joko onena erakutsi eta sailkapenean gora egiteko.

Gazteak indartsu

Jubenil mailako mutilek Corazonistas taldearen aurka lortutako garaipena azpimarragarria izan zen: 27-20.

Neskak, berri, Urolaren aurka partida bizia jokatu eta garaipena lortu zuten 13-21). Une honetan lehenengo postuan daude.

TIRO PLATER TXAPELKETA



Datorren maiatzaren 17an Antonio Gabirondo Memorialaren edizio berria ospatuko dute Arkaleko tiro zelaian

(Oiartzun), Compak Sporting eran. Urnietako Santa Krutz elkarteak antolatuta, txapelketa goizeko 9:00tatik

13:00ak bitarte izango da. Argazkian, irabazleak eta antolatzaileak iazko sari banaketa ekitaldian

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzailak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietak). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

APIRILAREN 30ETIK AUERRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “El nuevo hotel Marigold”. Larunbata, 2: 19:30, 22:00. Igandea, 3: 19:30. Astelehena, 4: 19:30, 22:00.
- Datorren asteburuan: “La dama de oro”, “Shaun arditxo: filma”. Maiatzak 9, 10 eta 11.

Urnietak, Sarobe

- “Samba”. Maiatzak 15, ostirala. 22:00. Maiatzak 17, igandea. 18:30.

Musika

Andoain

- Kalakan eta Oreka TX zuzenean arituko dira. 21:30. Bastero. Maiatzak 8, ostirala.

Deialdiak

Andoain

- Leizaur ikerketa lanaren oinarriak onartu dituzte. Udaleko webgunean ikus daitezke. Egitasmoak aurkezteko epea maiatzaren 15ean bukatuko da.

Urnietak

- Urnietak herri izaera jaso zuen 400. urteurrena beteko duela eta efemeridea ospatzeko Egapek Gazte festetarako egitasmo berezia martxan jarri du: “Gazte dantza-soka”. Horretarako ezinbestekoa da herriko 10-14 urte bitarteko gazteen parte hartzea. egapedantzataldea@gmail.com

Bozak

Urnietak

- EAJk jakinarazi du apirilaren 29tik aurrera posta bidezko bozka egiteko eskaera bideratzeko laguntza eskainiko dutela Batzokian arratsaldero 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago: 688 681 303.

Batzarra

Andoain

- Ostegun honetan arratsaldeko 19:00etan hasita, agintaldiko azken Udal batzarrari hasiera emango diote. Gai-ordena luzea da, 18 puntukoa denera. Nabarmenenak honakoak: Udal gazte plana eta gazteek lokalak erabiltzeko Udal Ordenantza onartzeko proposamena, 2014ko likidazioaren berri ematea, 2015eko aurrekontu orokorra, 2015-2016 plan ekonomiko-finantzieroa, Galardi Haur eskolako eta Musika Eskolako tasen aldaketa, “Josebaren postontzia” dela eta PSE-EEren mozioa, etab. 19:00. Udaletxea. Apirilak 30, osteguna.

Erakusketak

Andoain, Bastero

- **San Kristobal gotorlekua:** Iruñean, 36ko Gerran, preso asko egon zen bertan. Santa Krutz adineko zentroaren eskutik ikusgai. Maiatzaren 9ra bitarte.
- **Argazkialdia 2015:** Lobo Altuna, Iñigo Royo, Beñat Arregi eta Nagore Legarreta. Erakusketa ekainaren 12ra arte zabalik. Hainbat tailer iragarri dituzte. 18:00. Irekiera ekitaldia Maiatzak 16, larunbata.

Udalekuak

Urnietak

- Eguzkitan Blai 2015: 2003-2011 jaiotakoak: Uztailak 1-30, astelehenetik ostiralera. 2003-2006 jaiotakoak: ■ Kirol Udalekuak, bi txanda: Ekainak 29-uztailak 10. Uztailak 13-24. Ordutegia, kasu guztietan: 10:00-13:00. Izen-ematea: Bertan, maiatzaren 8a baino lehen.

Jaiak

Andoain

- Santakruzak, ostegunetik igandera. Informazioa eta egitaraua 6-9 orrialdeetan, astekari honetan.
- Aurtengo **Sanjuanen** prestaketan, herritarrek egitaraua osatzeko apirilaren 30era arte proposamenak egiteko aukera izango dute. Bestalde, txupinazoa nork bota erabakitzeko aukera irekita dago, maiatzaren 8ra arte.

Literatuta

Andoain

- “111 akademia” literatur sariaren banaketa ekitaldia. 19:30. Bastero. Maiatzak 7, osteguna.

Antzerkia

Urnietak

- “La verdadera la historia de Romeo y Julieta” 19:30. Sarobe. Maiatzak 10, igandea.

Ibilaldia

Andoain

- Mendeurrenaren harira, Andoaingo historian zehar eraiki izan diren eraikuntzetara bisita gidatuak. Maiatzak 16-17. Doan. Izen-ematea: Basteron eta Atarian maiatzaren 11tik 14ra.

Bazkaria

Urnietak

- Maiatzaren 3an Santa Kruz Elkartek elkartaren eguna ospatuko du. Bazkariaren menua: Legatza saltsan, arkume erreka, hojaldre tarta, kafea eta kopa. 14:00. Maiatzak 3, igandea. Izena emateko azken eguna: Apirilak 30, osteguna.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Aritz gure printzesa handiak dagoeneko 6 urte bete ditu. Muxu handi bat etxeko guztien partez. Maite zaitugu!!!!!!

ANDOAIN

ZORIONAK



Pello kapirilaren 29an 4 urte. Orain arte bezain jator izaten jarraitu! Muxu handi bat eta mila zorion familia guztiaren partetik!

ANDOAIN

ZORIONAK



Ane Amu-txastegik Santa Krutz egunean beteko ditu urteak. Jarraitu horrela, ondo pasa Santa-krutzak. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Jone 2 urte beteko ditu datorren maiatzaren 4an. Zorionak eta muxuak. Ondo pasa! Etxekoak.

ANDOAIN


ZORIONAK



Mikel Iza Lasagabasterrek bi urte bete zituen apirilaren 29an. Muxu bete zaku zuretzat, maite zaitugu!!

ANDOAIN

ZORIONAK



Apirilaren 16an **Mike** 27 urte bete zituen eta maiatzaren 9an bere anaia **Garikoitz** 37 beteko ditu. Zorionak eta muxu bana, aita eta ama.

ANDOAIN

ZORIONAK



Naro Irazu Romanek maiatzaren 12an 6 urte beteko ditu, bere ahizpa **Izarok**, maiatzaren 30ean 8 urte. Beti bezain alai eta jator jarraitu. Marrubizko muxutxoak. Etxekoak.

ANDOAIN

Muxu goxo elkarteak deituriko logotipo lehiaketa

Muxu Goxo elkarteak sortu berria da Urnietan, eta logotipo beharrean dago. Muxu Goxo gazte, nerabe eta haien hezitzaileei laguntza modu anonimoan eta doakoan emateko sortu da. Online ikastaro eta aurrez aurreko kontsultez gain, formulario bidezko kontaktua ere eskainiko dute, identifikatu nahi ez dutenentzat. Bestalde, materiala eskuratzeko txokoa ere egongo da (preserbatiboak, konpresak, ukenduak...).

Muxu Goxo Gabriela Zalazar ginekologoak, Tania Navarro psikologoak eta hainbat irakaslek babesten dute, beste hainbat profesionalen artean.

LOGOTIPO LEHIAKETA

Lehiaketa abian jarri du 10-25 bitarteko gazteentzat. Logotipoak honako balioak adierazi behar ditu; errespetua, tolerantzia, sexualitatea, gaztetasuna, berdintasuna, aniztasuna, zoriontasuna, elkarbizitza eta maitasuna.

JPG formatuan, 300 PPIko erresoluzioan eta CD batean sartuta aurkeztu behar da. Horrez gain, parte hartzaileek 3 euroko izen-ematea ordaindu eta egilearen datuekin batera, guztia gutunazal batean aurkeztu beharko dute maiatzaren 31 baino lehen Urnietako Etxeberri plaza 7ra. Irabazleak 150 euroko saria jasoko du.

Maiatzaren 24ko hauteskundeen egutegia

Udal hauteskundeen kanpainari datorren maiatzaren 8an emango diote hasiera, 22ra arte.

Hauteskundeak maiatzaren 24an izango da, eta karregu hartze ekitaldia berriz ekainaren 13an.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA MAIATZAREN 8AN ARGITARATUKO DA